ZOHARDIA

Ildo **politikoa**

Zurekin
birsortu

1. Abagunea

1.- Errealitatearen gaineko begirada pausatu bat behar du Sortuk lehenik eta behin, estrategiak doitzeko funtsezkoa baita bizi gaituen garaiaren ikuspegi zorrotz eta sakon bat. Lurrazalak sintomak adierazten ditu maiz, baina barrunbeetan gertatzen diren sakoneko eraldaketa korronteei erreparatzea dagokigu arnas luzeko herri-estrategiak josi behar baditugu. Izan ere, jendarte aldaketa bortitzak sumatzen ditugu gure ingurunean, aro aldaketaren harrabotsak nonahi. Bide horretan, ponentzia honi, hedadura handiko azterketa bat osatzea baino, fase politiko honen definizioak behar dituen egiturazko analisi-elementu kualitatiboak mahaigaineratzea dagokio, testuinguru globalari zein lokalari erreparatuz, irakurketa kointuraletatik haratago.

Globalizazio neoliberala

2.- Bizi dugun garai historiko hau ezaugarritzeko saiakeran hasita krisia da lehen lerroan jarri ohi den berba. Zalantzarik gabe, eragin handiko gertakari politiko eta sozialak bizitzen ari gara krisi egoera orokorraren testuinguruan, eta esango genuke une historiko oso berezian gaudenaren sentipena indartuz doala gure kontzientzietan. Garai konplexua da inondik inora, arrisku kolosalak eta itxaropen printzak txirikordatzen direnekoa. Krisi ekonomikoaren hari-muturrari tiraka ekingo diogu matazaren barreneko korapiloak identifikatzeari.

3.- Egun bizi dugun krisi orokorra, kapitalismoaren garapen historikoan eman diren krisi zikliko bat baino askoz sakonagoa eta estrukturalagoa den zantzuak geroz eta agerikoagoak dira. Izan ere, modernitate kapitalistak ezaugarritu duen garapen eredua bera agorpen bidean aurkitzen dela dioten adierazleak oso indartsuak dira egun, eta ondorioz kapitalismoaren krisi sistemikoaren hipotesia indarra hartzen ari da komunitate zientifikoan.

4.- Ikuspegi historikoak lagun gaitzake argi pixka bat ematen. Aldi neoliberalari 70eko hamarraldian eman zitzaion hasiera. Kapital metaketa izugarriak sortu zuen errentagarritasun arazoari bilatutako irtenbidea litzateke kapital finantzarioari erabateko nagusitasuna aitortzen dion neoliberalismoaren aroa. ELGAko (OCDE) herrialdeek zergak jaisteari ekin eta zorpetzea bihurtu zuten ongizate estatua finantzatzeko bide nagusi. Hortik aurrera bankuak –merkatua alegia– dira estatuak sostengatuko dituztenak, gobernuak merkatuarekiko menpeko bihurtuz gain-zorpetzearen ondorioz.

5.- Arazoak zorra –ekonomia finantzarioa– ekonomia erreala baino askoz gehiago hazten denean hasiko dira. Gaur hegemonikoa den sisteman une jakin bat heltzen da non zirkulatzen ari den diru kopurua –zorpetzeari esker– askoz azkarrago hazten den produktibitatea baino. Bigarrenak ezin dio lehenari jarraitu eta sistemak bere burua

suntsitu ohi du ziklikoki. Etengabeko hazkundearen ezinbestekotasuna ekonomia finantzarioaren nagusitasunaren ondorioa da neurri batean, ekonomia erreala haztea beharrezkoa baita maileguak eta interesak itzultzeko.

6.- 80. hamarralditik aurrera nazioarteko elkartruke ekonomikoak –eta bereziki finantzarioak– ziztu bizian hazi ziren, herritarrak eta herrialdeak merkatuaren nahikeriaren objektu bihurtuz, eta haustura ekonomiko, politiko eta kulturalak areagotuz. Globalizazio neoliberalaren aroan gaude, merkatuen erabateko askatasuna bermatzea asmo dituzten neurri ekonomiko globalen garaian –erreforma finantzarioa, lan merkatuaren erreforma, aurrekontuen egonkortasuna, austeritate politikak, etab.–.

7.- Globalizazio neoliberalaren eragin anitzen artean –politikoak, kulturalak, sozialak–, eskala nazionaleko egitura produktiboak presio konpetitibo handiko nazioarteko joko zelaian integratu dira, eta honek mundu mailako indar harremanen oreka aldatzen ari den agertoki historikoan jarri gaitu. Izan ere, Amerikako Estatu Batuek eta europar mendebaldeak jokatu duten lidergo papera zalantzan dago inoiz baino gehiago. Gaur, munduko beste toki batzuetako herrialdeak bihurtzen ari dira dinamismo ekonomikoaren protagonista berri –BRICS deritzan herrialdeak kasu–. Herrialde emergenteek dagoeneko balio erantsi handiko ekoizpenak ere egiten dituzte, eta ekonomia globalean txertatzeko bestelako modu horrek botere talka berriak ekarri ditu.

8.- Beharbada azken hamarkadetako aldaketa ekonomikorik funtsezkoenetakoa da honako hau. Testuinguru honetan kokatzen dira han eta hemen egin diren esku-hartze militarrak eta piztu diren gerra fronteak –Magreb, ekialde hurbila, edota Ukrania kasu–. Mundu multipolarraren jokaleku arriskutsu honek interes kapitalisten talka geroz eta biziagoak ekarriko ditu aurrerantzean ere.

9.- Politika neoliberalen ondorioak muturrekoak dira hainbat kasutan, orain artean kapitalismoak sortu dituen antagonismoak biderkatuz batzuetan eta antagonismo berriak sortuz besteetan. Gutxietsi gabe beste batzuk:

- Ezberdintasunen areagotzea: Ezberdintasunak inoizko handienak dira munduan eta hazten ari dira. Aberastasuna geroz eta esku gutxiagotan pilatzen ari da 70eko hamarraldiaz geroztik, eta 2008an eztanda egin zuen krisi ekonomiko-finantzarioaz geroztik joera areagotu baino ez da egin. Desoreka, injustizia eta menpekotasun harremanak nagusi beraz. Neurri handi batean neoliberalismoa desposesio operazioa da, kapitala metatzeko une berria, zeinean akumulazio horretarako oztopoak deuseztatu nahi diren.

- Jendarte-sektore zabalen prekarizazioa: Langabeziaren eta lan baldintzen prekarizazioaren ondorioz bizi proiektu duina eta autonomoa garatzeko jendarte baldintzak pitzatu egin dira. Ongizate estatua deitu dena iraganeko kontua da eta nazio-estatuaren egitura administratibo-burokratikoa indarge ageri da egoeraren

konplexutasunari aurre egiteko. Ongizatea eta segurtasun soziala oinarritzat aurkezten zituen jendarte antolamendutik ziurgabetasuna ezaugari nagusi duen jendarte eredura igaro gara. Zentzu horretan kapitalismo liberalaren promesa ezbaian aurkitzen da: hazkunde ekonomikoaren bidez geroz eta jendarte-sektore zabalagoen ongizatea bermatu daitekeenaren ideiak sinesgarritasuna galdu du.

• Demokraziaren kontrako erasoa: Estatuez gaindiko boteregune ez demokratikoen eraginez nazio-estatuek prozesu politiko eta ekonomikoak erregulatzeko ahalmena galdu dute, demokrazia liberalaren egituren (administrazio sistema, alderdi politikoak, etab.) sinesgarritasun krisia areagotuz.

• Globalizazio neoliberala prozesu sozioekonomikoa izateaz gain ideologikoa eta kulturala ere bada, jendarte joera oso bortitzen sortzaile: likidotasuna, ehundura komunitarioen haustura, homogenizazio kulturala, fragmentazio soziala edota hedonismoa batetik; eta faxismoa, eskubiko populismoa, fundamentalismoa, xenofobia edota arrazakeria bestetik. Esanguratsuki biak dira aro neoliberalaren aurpegiak.

Zibilizazio krisia

10.- Kapitalaren metaketa eta hazkunde etengabea oinarri duen sistema sozioekonomikoak planetaren eskala fisikoarekin talka egin du, gizadia bera arriskuan jartzeraino. Gaur zalantzaezina da nagusi den garapen eredua ez dela sozialki eta ekologikoki bideragarria. Zibilizazio krisia deitu dena krisi-bektore ugariren konbergentzia da. Lau bektore badira gutxienez azpimarra merezi dutenak: gizadiaren historian inflexio puntua izan daitekeen krisi energetikoa; planetaren hainbat tokitan bizitza arriskuan jartzeko bidean den aldaketa klimatikoa; sistema naturalen degradatze hazkorra; eta inoizko krisi sozial handiena, pobreziaren globalizazioa, ezberdintasunak, injustizia eta zapalkuntza ugaldu eta sakondu dituena.

11.- Bosgarrren bektore batek ere merezi du arreta: jendarte prekarizazioaren ondorioz, bizi-oinarrien zutabe den zaintzaren krisia hedatu da, bizitzaren iraunkortasunerako baldintzak kolokan jarriz. Historikoki familiako eremu pribatuan, emakumearen ardurapean, asetu baitira zaintzaren premiak, soldatapeko gizon-etxekoandre binomioaren bidez. Eredu hau gainbehera etorri da emakumeek emantzipazio bidean lanerako urratsa era orokortuan egin dutelako, eta familia nuklear estandarraz gain beste izaera askotariko familia ereduak osatu direlako. Ondorioz, zaintzaren premiak prekarizatu egin dira eta, gehienetan, emakumeen gainzamaren bidez ari dira betetzen.

12.- Esan bezala, kapitalaren logika inoiz ezagutu ez dugun neurrian ari da bizitzaren oinarriekin talka egiten. Egungo kontraesan sozial nagusia kapitalaren eta lanaren –

ordainpekoen– gatazka baino kapitalaren eta bizitzaren artekoa dela argudiatzen du ekonomia feministak. Zibilizazio krisiak antagonismo hau muturrera eramateko potentziala izan dezake XXI. mendearen lehen erdi honetan.

Europar jokalekua

13.- Europar Batasuna krisi larrian dago. Munduko mapa geoekonomiko aldakorrean geroz eta agerikoagoa da Europa bigarren mailako aktorea dela. Herrialde gehienek produktibitate jaitsiera nabarmena izan dute azken urteetan, beren egitura produktiboek lehiakortasuna galdu dutelarik. Ondorioz, langabeziak gora egin eta ongizate estatuak gainbehera egin du, batasuneko kide diren herrialdeen arteko ezberdintasunak areagotzeaz batera. Bere kontzepzio soziala galtzeaz gain –goitik behera eta logika neoliberalari jarraiki eraikitako egitasmoa baita– integrazio ekonomiko eta politikorako eremu gisa porrot egiteko bidean da Europar Batasuna, Grezia eta Brexit auziek erakutsi duten bezala.

14.- Krisi honen aurrean eskuin xenofoboa burujabetzaren diskurtsoa astintzen ari da, ezkerreko mugimendu batzuk, globalizazioaren izpiritua irentsiz edota jarrera 'internazionalista' ortodoxoak mantenduz, eskuak lotuta legez jarduten duten bitartean. Zorionez, nahiz alternatiba global sinesgarri bat eraikitzeko ahalmenik antzematen ez den, burujabetzaren aldarrikapena globalizazio neoliberalari aurre egiteko hautua ere bada europar jokalekuan. Europa zabalean gertatzen ari diren mugimendu askatzaile ezberdinek –15M, austeritate politiken kontrako mugimenduak, mugimendu sezesionistak– herri-burujabetzaren aldarrikapena dute oinarrian. Izan ere, aurrez esan bezala, globalizazio neoliberalaren testuinguruan burujabetzan aurrera egitea herritarren ongizatearen bermea da inoiz baino gehiago. Nork bere lurraldea gobernatuz eredu sozial eta ekonomiko berriak eraikitzeko egitasmoa da burujabetzaren aldarria, herrien eta herritarren eskubideen bermerako itxaropena. Eztabaida honetan gu ez gaude eman dezakeen bezain galdurik, ezker abertzalearen sorrerako hipotesi estrategikoak –herri-eraikuntza eta burujabetzaren defentsa dira eraldaketa demokratiko-sozialistaren gakoak– inoizko gaurkotasun handiena baitu.

15.- Aipamen berezia merezi duten Eskozia eta Kataluniako sezesio prozesuek aldaketa sakonak ekarri dituzte mendebaldeko Europara, mugen iraunkortasuna kolokan jarriz eta eredu neoliberalari aurre eginez. Ikusi beharko da zein den prozesuon garapena, baina egun bektore askatzaile eta eraldatzaileak dira eta eragin handia izan dezakete beste hainbat herri prozesuetan. Ezker abertzalearentzat erreferentzia argia izan den Ipar Irlandako prozesuak ere merezi du arreta, Irlandara batzeko erreferedumaren aukera mahai gainean jarri baita Brexit-aren ondoren.

Espainia eta Frantzia

16.- Gainean ditugun bi Estatuen egoera testuinguru globalaren prismatik baino ezin da aztertu. Mapa geoekonomiko berrian espainiar eta frantziar potentziak kolokan daude modu ezberdinean bada ere. Esanguratsuki, segurtasunaren esparruan bilatzen dute beste esparru batzuetan galdutako lidergoa, sekurokrazian sakonduz. Frantzian eskuin xenofobo populistaren harrotzea da krisi politikoaren adierazleetako bat, Espainian aldiz 78ko erregimenaren ezegonkortasun estrukturala. Biek ala biek birzentralizaziorako joera indartu dute, estatu burujabetza behetik auzitan jartzeko aukerak moztu asmoz.

17.- Espainiak merezi du aparteko aipamenik. Ikuspegi ekonomikotik 'huts egindako estatuaren' traza hartzen ari da egunez egun. Egitura produktibo ahularekin eta zor publiko neurriz kanpokoarekin krisi ekonomiko permanentean aurki liteke, eta ziurra da atzera pauso nabarmenak biziko dituela Europarekiko konbergentziaren ikuspegitik. Egoera horretan pobretze eta prekarizazio prozesuen areagotzea espero liteke datozen urteetan. Ikuspegi politikotik berriz krisi territoriala sustengaezina da, estatu autonomikoaren eredua, baliabide urriko garaian inefizientea izateaz gain, ustelkeriak jota baitago.

18.- Krisi politiko sakona beraz, 1978an finkatutako erregimenaren oinarriak astintzen dituena inoiz ez bezala: Espaniaren batasuna eta eredu neoliberalaren aldekotasun sutsua. Alta, krisia egiturazkoa den arren, kontuan izan behar dugu 1978ko erregimenak estatu mailako aldaketa sakon baten aukera kortozirkuitatzeko gaitasuna adierazi duela. Epe laburreko asaltoaren hipotesiak porrot egin du. Honek ez du esan nahi Podemosek ordezkatzen duena desagertuko denik, ezta gutxiago ere. Aldaketa batzuk gelditzeko etorri dira. Alabaina, hurrengo baieztapena idazteko moduan gaudela uste dugu: gaur egun ez dago baldintza historikorik Espainian errotiko demokratizazio dinamika errealik abiatzeko.

Euskal Herria atezuan

19.- Begirada gure herrian pausatuta argi gorriak pizteko arrazoirik ez zaigu falta. Oldarraldi neoliberalaren aintzinean eta tresna burujaberik gabe Euskal Herriak atzerapausuak eman ditu hainbat alorretan. Herri honen pultsua motel nabari da:

- Gure egitura produktiboa nabarmen ahuldu eta deserrotu da. Multinazional erraldoien neurrira eraikitako agertorkian eta politika sozioekonomiko propiorik gabe, aberastasuna sortu eta banatzeko ahalmen urriagoa du gure ehun produktiboak.

- Lurraldeari erreparatuta, zatiketa administratiboa tarteko, lurraldearen kohesio soziala bermatzeko metabolismo sozioekonomikoak gabezi larriak agertzen ditu.

• Egitura sozialari dagokionez, joera sistemikoen eragina sakondu egingo da datozen urteetan bide beretik jarraituz gero: lan merkatuaren dualizazioa, emakumearen bazterkeria lan merkatuan, lan erreproduktiboaren feminizazioa, aniztasun kulturalaren aurrean jarrera xenofoboen indartzea, gazte belaunaldien exilio ekonomikoa, populazioaren zahartzea eta bere ondorioak, etab.

• Globalizazioaren jendarte joerek euskal ehundura komunitarioak ahuldu dituzte: pertenentzia zentzua, helburu kolektiboekiko identifikazioa, bulkada asoziatiboa, edota autoantolaketarako sena apalduz joan dira azken hamarraldietan. Kapital sozial altuko herria izan da gurea baina globalizazio neoliberalak eragindako indibidualizazio joera bortitzak euskal jendartearen lurzoru kulturala eraldaltzerainoko indarra erakusten ari dira.

• Euskarak eta euskal kulturak bulkada sozial, politiko eta instituzional berri baten behar urgentea dute globalizazioaren uholde kultural, politiko eta teknologikoak irentsiko ez baditu. Euskal identitatearen erreprodukziorako tresnak falta zaizkigu. Euskal komunikabide esparrurik gabe sare mediatiko globalaren menera bizi gara geroz eta jendarte mediatizatuagoan.

• Espainiaren birzentralizazio prozesuak eta esku-hartze jarraiak autogobernuaren sistema instituzionala kamustu eta eragin gaitasun errealik gabe utzi dute.
• Gure herriak bakea aldarrikatu duen arren estatu botereak eroso daude logika politiko-militarrean eta ez dute baztertu nahi. Gatazkaren ondorioen konponbideak blokeatzeko saiakera etengabean darraite, ez dute konfrontazio armatuaren gainditzeak sortu dezakeen lorpen komunaren kontzientzia indartu nahi.

20.- 60 urteko mobilizazio ziklo historikoaren hondarrean aurkitzen gara. 2011. urtea mugarri historikoa da, herri honi hainbeste eman dion ziklo historikoaren amaiera sinbolizatzen duen neurrian. Mobilizazio ziklo berri bat abiaraztea dagokigu orain, garaiko ekintza ziklo kolektiboarekin bat egingo duena eta Euskal Herriari aurrerabideak eskainiko dizkiona globalizazio neoliberalaren itsaso harroak irentsi ez dezan.

2. Burujabetzea, jendartea eraldatzeko egitasmoa

Hemen gaude munduari esanaz
beste mundu bat posible dela,
baita isildu nahi izan gaituztenentzat ere.
Denok gara mundu,
eta horregatik diogu hemen gaudela,
esku bat luzatuz, irrifar bat zabalduz lau haizetara,
irri eginez lau haizetara.

Jon Maia (2016)

Menturari hiru dohain zor dizkiot: emazte sortu izana,
klase sozial apalekoa eta herrialde zapaldukoa.
Eta hiru bider errebelde izateko urdin uherra.

Maria Mercè Marçal (1976)

21.- Gau ilunenetan ere badira argia egiten duten izarrak. Guri munduaren txoko honetan izar berri bat piztea dagokigu, zibilizazio berri baten konstelazioa ugaldu dadin. Itxaropen bideak zabaltzea dagokigu. Etsipena ez da inoiz aukera bat izan eta borrokak betiko xarma izaten jarraitzen du.

Demokrazia

22.- Sorturen ekinbidea herritarrok politikaren –polisaren antolamenduaren– eta ekonomiaren gainean eragiteko ahalmena –botere politikoa– berreskuratzeko ahalegina da funtsean. Elite ekonomiko eta politikoen botere kontzentrazioaren aurrean herri-boterea –demo-krazia– eraikitzeko egitasmoa da gurea, bizitzaren arlo ezberdinetan erabakitzeko eskubidea gauzatzeko borondatea.

23.- Finean, gure egitasmoa demokrazian sakontzeko ekinbidea da, erabakia herritarren eskuetan jartzeko proposamena. Demokrazia eraiki, zabaldu, sakondu eta errotzeko saiakera, herritarrek geroz eta botere gehiago izan dezaten bizitza komunaren joku

arauak ezartzeko, ordezkari eta herritarren arteko distantzia laburtuz eta inork aukeratu ez dituen botereen erabakimena mugatuz.

Burujabetza

24.- Burujabetzeaz ari gara beraz, burujabetza berreskuratzeaz; eta proposamen politiko eraldatzaile integral gisa ulertzen dugu, botere harreman justuago eta berdinzaleagoen posibilitatea eta beharra baitakar berarekin, eta parte-hartze politiko formala aberastu eta gainditzen duen proposamena baita. Herritarren bizitzen eta gorputzen gaineko erabakimenaz ari gara, eta herri bat garen heinean, komunitate gisa dagozkigun eskubideen jabetzeaz. Jendarte justua, demokratikoa, askea eta zoriontsua; horixe litzateke gure egitasmoaren bisioa. Obanosko infantzoiek erdi aroan aldarrikatu zuten leloa geure egiten dugu bidenabar: 'Herritar libreak izan nahi dugu herri librean'. Honek, XXI. mendeko munduan, globalizazio neoliberalari aurre egin eta bizitzaren iraunkortasuna eta zaintza erdigunean jartzea eskatzen du.

25.- Izan ere, une historiko honen ezaugarri nagusietako bat demokraziaren kontrako erasoen sakontasuna da, eta honek kokapen berria eman dio burujabetzaren auziari. Burujabetzea ofentsiba neoliberal antidemokratikoari aurre egiteko hautua bilakatu da, demokraziaren defentsarako bidea, justizia sozialean aurrera egiteko ezinbesteko urratsa. Horrenbestez, globalizazio neoliberalaren testuinguru historikoak erdigunean jarri du burujabetzaren aldarria, bestelako bizitza komunerako ereduak gauzatzeko erabakimena behar baita.

Dependentziaren mehatxu estrategikoa

26.- Dependentziak ez du soilik gure herriaren garapen kultural eta politikoa konprometitzen, arrazoi ukigarriagoen artean, inoiz baino agerikoagoa da mehatxu estrategiko bihurtu dela ikuspuntu sozioekonomikotik. Bederatzi urteko krisialdiak kalte nabarmenak eragin ditu gure herrikideengan –langabezia, prekarizazioa, pobrezia, desjabetzeak, migrazioak, desindustrializazioa, etab.–. Estatuen gobernuetatik eta Bruselatik ezarri diren neurriek egoera are gehiago kaltetu dute –lan erreforma, pentsioen erreforma, industria politika eza, banku sistemaren erreforma, hezkuntza erreforma atzerakoiak, etab.–, bai krisiaren eraginak jendartearen segmentu ahulenen bizkargainean eroriarazi dituztelako, bai, gure errealitate sozioekonomikora egokitzen ez diren neurri zentralizatzaileak inposatuz, krisialdiari aurre egiteko baliabide eta tresna endogenoak mugatu eta kamustu dizkigutelako.

27.- Gure ehundura sozial eta produktiboak, finantza sistemak, indar korrelazioak, kultura politikoak eta administrazioek –gure gabezi eta ahuldadeekin ere– krisiari aurre egin eta garapen bide berriak jorratzeko beste aukera batzuk ahalbidetzen dituzte; baina horretarako tresnak eta erabakimena behar ditugu, burujabetza alegia.

Emergentzia eta burujabetza

28.- Esana dugu burujabetzaren egitasmoak bizimodu hobe bat eraikitzeko asmo etiko eta politikoa ordezkatzen duela. Hain da horrela, ezen kapitalismoaren krisi sistemikoaren agertoki historikoari erreparatzen badiogu, emergentzia sozial eta ekologikoari eman dakiokeen erantzun bakarra izan baitaiteke.

29.- Arrazoi ugari dago pentsatzeko jendarte eredu berrien eraikuntzaren ardatz estrategikoetako bat tokikotasuna izango dela, garrantzia berezia hartuko dutelarik eskala fisiko txikiagoko egiturek, baita neurri handian autosufizientziara joko dutenek: jendarte lokalizatuagoa, ekonomia sustraituagoa, baliabide endogenoen optimizazio handiagoa eta herritarren jarrera arduratsuagoak izango dira besteak beste etorkizun hurbileko bizi kalitatearen oinarriak.

30.- Izan ere, bistakoa da erabakimen politikoa beherakartzeak garapen sozioekonomikorako aukerak biderkatzen dituela: herrialde txikiak, sozialki eta kulturalki kohesionatuak, dira garapen adibide onenak, erabakiak lurralde zehatzetara gerturatzen dituzten eredu deszentralizatu, federal, edota konfederalak. Beraz, garapenaren kontzepzio integrala –ekonomikoa, teknologikoa, hizkuntzazkoa, identitarioa, politikoa, ekologikoa, etab.– ipar hartuko duen burujabetza askotarikoa areagotzea hautu estrategikoa da zibilizazio berri baten eraikuntzarako.

Autoeraketa eta eraldaketa

31.- Euskal Herriak herri gisa heldu behar dio erronka honi, herri gisa pentsatu eta jardun gabe nekez egingo baitugu burujabetzaren bidea. Izan ere, herri aske izateko egitasmoak borroka eta asmo anitz batzen baititu, ezberdinkeria anitzak bermatzeko ezinbestekoa den zatiketa soziala gainditzeko aukerak eskainiz. Hori dela eta, Euskal Herriaren prozesu autoeratzaileaz mintzo gara, autoeraketa eraldatzaileaz; pertsona libre, eskubidez berdin eta elkartasunez lotuen arteko elkarbizitza esparru berri baten eraikuntzaz; globalizazio alternatibo, demokratiko eta solidarioak eraikitzeko saiakeren esparruan kokatuko gaituen prozesuaz. Hauxe da abiatu nahi dugun mobilizazio ziklo berria, autoeraketaren eta eraldaketaren zikloa.

32.- Ziklo berriak baditu gutxienez bi berezitasun azpimarra merezi dutenak. Lehena: aniztasuna du abiapuntuan. Euskal Herria anitzagoa baita egunez egun, modu ezberdinetan bizi eta ulertzen da, eta euskal nazioko kide sentitzeko motibo bat baino gehiago ere badago. Hain zuzen, aniztasunaren aldekoa izan da gure erresistentzia borroka, Espainia eta Frantzia diren nazio bakar, homogeneo, ondo mugatuen kontrakoa. Eta jite berekoa behar luke etorkizuneko egitasmoak, aniztasunaren kudeaketa demokratikoan oinarritutakoa.

33.- Hari horretatik tiraka, euskararen minorizazioa ez da arazo partikular identitario partzial bat. Aitzitik, euskal hiztun izateak eskubide gutxiago izatea du ondorio, funtzio eta espazio jakinen ukazioa, politikoak eta botereari lotutakoak bereziki, eta horrenbestez, zehazki bigarren mailako herritar izatea dakar; eta bigarren mailako herritarrak egotea jendarte osoaren arazoa da, demokraziaren funtzionamendu murritzaren sintoma argi bat alegia. Euskaradunok saiatu behar dugu euskara identitate elementu nagusienetakoa bakarrik ez, baizik eta komunikazio medio printzipala egiten; eta borroka horrek beste hainbat menderakuntzak sortutako borroka eremuekin batera aritu behar du elkarrekiko lehian ulertu beharrean, identitatea askatasun nahitik ere eraikiz.

34.- Bigarrena: euskal ziklo berria inoiz baino globalizatuagoa izango da, halakoxea baita bizi dugun aroa. Gure bizitzak arautu eta mugatzen dituzten erabakiek irismen globala dutenez gero, alternatiben eraikuntzak saiakera globala behar du izan inoiz baino gehiago. Hain zuzen, Euskal Herri burujabearen egitasmoa proposamen unibertsala da, bestelako zibilizazio baten eraikuntzan jarri nahi dugun hondar alea. Honek beste lekuetako –eta modu berezian europar jokalekuko– egitasmo eraldatzaileekin harremanak estutu eta aliantza berriak eraikitzera behartzen gaitu.

35.- Justizia soziala, bizi eredu demokratiko eta iraunkorra, eta euskal kultura indartsua; eta horretarako hartu beharreko erabaki guztiak hemen hartu. Hauxe Euskal Herri burujabearen proposamenaren funtsa. Uste dugu euskal jendartearen gehiengo zabal baten taupada koordenada hauetan dagoela. Proposamen hau egunez egun hezurmamitu eta borrokatzea dagokigu eraldaketa politiko eta sozialaren aldeko eragile eta norbanakooi. Sortuk indarrez bultzatuko du bide hau.

3. Burujabetzea, elkarrekin egin beharreko bidaia

Askatasunerako bidaiarako gida argi bat behar duenak, Michelin edo Wikitravel moduko bide-erakusle bat nahi duenak, barkatuko dit orain, ez dakit zenbat orrialderen bueltan aitortzen badiot ni ere basoan galduta nabilela harpetik zuhurtasunik gabe irten zen antzinako gizakia bezala, 'bidean galdua' nabilela blues zaharreko beltzak New Orleanseko kaleko desorduan bezala, blues zaharreko beltzak bezain beltz. Askatasunari dagokionez, nire inpresioa da gure askatasuna hodeiertzean dagoela oraindik, duela berrogei urte bezala, baina ez beti-hodeiertzean bakarrik, geure oinetako zolen azpian ere badaudela materia arraro eta eder horren birrinak.

Joseba Sarrionandia (2015)

36.- Baina nola egiten da bide hau? Non daude palankak? Nolako aliantzak behar dira? Sarreran esan bezala Sorturi ez dagokio bide orri itxi bat aurkeztea. Prozesu autoeratzailearen kartografia buru eta bihotz askoren arteko langintza izan beharko da. Gu, gure ikuspegiak euskal herrigileekin konpartitu asmoz, prozesuaren garapenerako bide orri baten trazo lodiak marrazten ahaleginduko gara atal honetan.

Herritarren eta herri-sektore anitzen bulkadaz

37.- Euskal Herriaren prozesu autoeratzaileak herritarra behar du lehenik eta behin, herrigintza ardatz izanik. Bi zentzutan diogu hau: lehenengo eta behin euskal jendartearen bulkada iraunkorra baino ezin daitekeelako izan tamaina honetako egitasmoaren motorra. Prozesuaren martxa ezin da eliteen arteko akordio aukeren araberakoa izan. Aitzitik, aintzindaritza gizarte zibil antolatuari dagokio, besteak beste hori delako berme bakarra herri ikuspegia alderdi interesei gainezarri dakien.

38.- Bigarrenik, esan dugunez, prozesu autoeratzailea herriaren eta herritarren boteretze –burujabetze– prozesua da funtsean, eta beraz herrigintzaren logikak bizitzaren esfera publiko eta pribatuaren eremu guztietara –merkatua, administrazio publikoa, komunitatea– hedatzea du helburu behinena, bestelako jendarte antolamendu baten balio ikuspegiak garatuz horrela: herritarren protagonismo aktiboa, pertsonen eta kolektiboen ahalduntzea, lankidetza, elkartasuna, herri ardura, konpromiso soziala, etab. Ondotxo ikasi dugunez boterea jendarte harremanetan nagusitzen diren orientabide etiko-politikoen eta horiekin bat datozen praktika materialen arabera birsortzen da.

Horregatik, gauza bat da instituzio bat gobernatzea eta beste bat nagusitasun etiko-politikoa aldatu ahal izatea. Prozesua pentsatu eta garatzeko ezinbesteko oinarria da herritarren partaidetza, jendarte berria ez baitugu soilik goitik behera ezarritako lege edo dekretuen bidez eraikiko.

39.- Euskal Herriaren prozesu autoeratzailea kapitalaren eta bizitzaren arteko kontraesan sozialak sortutako identitate anitzek –euskaldunek, emakumeek, prekarioek, baserritarrek, etab.– baldintza kultural eta material berriak eraikitzeko beharrezko duten konfluentzia espazioa da. Errekastoek itsasoratzeko ibai zabalaren ur emarira batzea behar duten legez. Eta ibaiaren ur emaria zenbat eta errekasto gehiagok elikatu orduan eta handiagoa izango da bere indarra itsasorako bidean aurkituko dituen oztopoak gainditu ahal izateko.

40.- Esan nahi baita, prozesu politikoa bat eta bakarra da, borroka ezberdinen bat egitea, herri-sektore anitzen indarra behar duena eliteko oligarkikoei aurre egin ahal izateko. Izan ere, bizi dugun testuinguruan, jendarte justu, berdinzale, iraunkor, feministа eta euskaldun baten alde egin dezakegun inbertsio politikorik emankorrena Euskal Herriaren autoeraketa dinamikan sakontzea baita. Eta hori, esan bezala, herri gisa elkarrekin egin beharreko bidaia da, klase eta sektore arteko prozesu trasbertsal bat.

Behetik gora, euskal herriak konfederatuz

41.- Behetik gorakoa, horrelakoa irudikatzen dugu dinamika autoeratzailea. Bidea helmuga bezain garrantzitsua delako, eta nolako praktika eratzailea garatu halako Euskal Herria ariko garelako eraikitzen. Horregatik, hain zuzen, eredu konfederalaren aldeko hautua egiten dugu, bi dimentsio bereiziz: batetik euskal lurraldeen arteko harreman politiko-instituzionalen artikulazioari erreferentzia egiten diona; eta bestetik, zentzu sakonagoan, tokikotasuna estrategikotzat joz botere politikoaren birbanaketa helburu duen praktika politikoari dagokiona. Horrenbestez, iritsi da garaia eredu konfederalaren hautua sakonki barneratu eta ondorio guztiekin geure egiteko.

42.- Euskal Herriaren zatiketa administratiboak sortu duen errealitate soziopolitiko eta instituzionaletik abiatzen gara, eremu juridiko-politiko bakoitzeko lurraldeak –Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria– erabakigune, eta beraz, subjektu politiko kontsideratuz. Bateratze prozesua –integrazio instituzionala– erabakigune bakoitzeko euskal herritarren borondate demokratikoaren bulkadaz etorriko da, lurraldetasunaren korapiloa dinamika autoeratzailearen baitan askatuko delarik. Gure estatalitatearen hondartzat jotzen dugun egungo sistema instituzionala hartzen dugu oinarri beraz, logika para-instituzionala alboratuz.

43.- Zehazki, ezaugarri eta erritmo propioak dituzten hiru prozesu eratzaile barnebiltzen dituen autoeraketa dinamikaz ari gara. Hiru prozesuetako bakoitzean euste-horma guztiak eraitsi eta aitortza goreneko status juridiko-politikoaren bila jo behar dugu –

Estatu statusaren bila alegia–, aldi berean Euskal Herri osoa aintzat hartzen duen praktika politiko egituratzailea –trinkotze sozial, politiko, ekonomiko, kultural eta instituzionala– garatzeaz batera. Hiru lurralde-agenda –Euskal Autonomia Erkidegoak, Nafarroak eta Ipar Euskal Herriak zeinek berea propioa– eta herri-agenda bat.

44.- Bi dimentsio mihiztatzen ditu autoeraketa dinamikak beraz: herri dimentsioa –herri-agenda– eta lurralde dimentsioa –lurralde-agendak–, eta biak dira ezinbestekoak Euskal Herria espazio funtzional eta sinboliko gisa eraikitzeko –Euskal Herri konfederala–. Metaforikoki azalduz hiru nasako geltokia da Euskal Herri konfederala, hiru tren, zein bere bidetik eta abiadura propioz datozenak –subjektu politikoak–, iritsi ahala jasotzeko prest izango dena.

45.- Halaber, eraikuntza konfederalak tokikotasuna estrategikotzat jotzen du eta Udalak –herritarrengandik hurbilenak diren instituzioak– subjektu aktibo bilakatzen ditu. Izan ere, tokiko eremua garrantzia berezikoa da burujabetza prozesuan urrats kualitatiboak eman ahal izateko: herritarren eta eragileen inplikaziorako espazio naturala delako; estrategia zorrotzagoak garatzeko aukera handiak ematen dituelako; eraikuntza eta eraldaketa prozesuen jabetze erreala bermatuz subjektu-protagonistak aktibatzeko aukerak biderkatzen dituelako; eta produkzio-egitura lokalizatuagoa, ekonomia sustraituagoa, baliabide endogenoen optimizazio handiagoa, eta herritarren erantzunkidetasuna eta jarrera arduratsuagoak sustatzeko aukerak handiagoak direlako. Ondorioz, botere politikoaren birbanaketan oinarritu eta herritarren erabakimena gauzatzeko espazioak irekiko dituen praktika politikoak prozesu autoeratzailearen muinean behar du.

46.- Udalgintzaren balioaz dihardugula, pasa den mendeko 30eko hamarraldian Udalek Euskal Herriaren eraikuntza instituzionalari egin zioten ekarpena dakarkigu gogora. Lizarrako Estatutuaren proposamenaren eztabaidarekin Euskal Herria bere historia modernoan izan den momenturik garaienera iritsi zen integrazio instituzionalari dagokionez –gogora dezagun, bidenabar, estatutu horrek euskal lurraldeen arteko artikulazio konfederala proposatu zuela–. Uste dugu datorren fase politikoan udal-ordezkariek Euskal Herriaren eraikuntza instituzionalari begirako lidertza funtzio bat bete dezaketela.

3.1. Euskal agenda baterako oinarriak

47.- Herri honek agenda bat behar du, beharrezkoa baitu estrategia beregainak artikulatzea, bertatik bertara pentsatuz, bertatik eta bertarako ekinez, gaurko egoera, tendentziak eta ekinbide posibleak aztertuz indargune zein ahulgune diren arlo zehatzetan. Euskal agenda bat euskal herritarren erabakia adierazi eta gauzatzeko, eta legitimotasun hori Espainiaren eta Frantziaren oztopo eta ukazioen aurrean defendatzeko.

48.- Agenda hori diseinatzea hurrengo bi galderei erantzuna bilatzea da funtsean: Zeintzuk dira prozesu politikoa azkartu dezaketen palankak? Eta zeintzuk dira arrisku sistemikoen aurrean Euskal Herriaren ahulgune estrukturalak, eta beraz nahi ala ez lehentasun behar duten erronkak? Esan bezala herri-agenda eta lurralde-agendak bereizten ditugu, bien arteko mihiztaketak bilatuz –elkar-elikatze prozesuak– baina bata eta besteen artean menpekotasun harremanik ezarri gabe.

3.1.1. Herri-agenda

49.- Herri-agendak Euskal Herria bere osotasunean aintzat harturik diseinatzen diren ekinbideak jasotzen ditu. Horrek ez du esan nahi ekinbideok Euskal Herriaren geografia osoan, simultaneoki eta modu homogeneoan garatu behar direnik. Aitzitik, lekuan lekuko errealitate propiora egokitzeko malgutasun nahikorik gabe eraginkortasun mugatua izango dute.

Herri-agenda lau puntu nagusitan aletu liteke gure iritziz:

1. Bizi eta lan baldintzen prekarizazioari aurre egin
2. Demokraziaren eta burujabetzaren aldeko herri-akordioak
3. Euskal lankidetza
4. Nazioartekotzea

50.- Bizi eta lan baldintzen prekarizazioari aurre egin: Bizi dugun krisi testuinguruan burujabetza prozesuak bizi eta lan baldintzen prekarizazioaren kontrako aldarria kapitalizatu behar du, hain zuzen herritar guztiei oinarrizko behar materialak eta bizi eta lan baldintza duinak bermatzeko nahi baitugu burujabetza lehenik eta behin. Lan baldintza prekarioak, etxe kaleratzeak, gazteen exilio ekonomikoa, pobrezia energetikoa, zaintza lanen prekarizazioa, eta bestelako egoerak ezagutu ditugu azken urteetan. Ezin dugu inor bide bazterrean utzi eta horretarako beharrezkoa dugu oinarrizko eskubide sozialen aldeko herri-aktibazio sendoa.

51.- Halaber, Estatuekiko dependentziaren ondorioz politika sozial eta ekonomiko propioak ezin garatu ahal izateak Euskal Herriari zer kalte dakarzkionaren inguruko pedagogia sakona egin behar da datozen urteetan, eratze prozesu orok, berarekin batera, deseratze prozesu bat behar baitu.

52.- Demokraziaren eta burujabetzaren aldeko herri-akordioak: Ez dago herri-akordiorik gabeko prozesu eratzailerik. Premisa horretatik abiatuta Euskal Herriak burujabetzaren eta demokraziaren aldeko herri-akordio trasbertsalak behar ditu, ahalik eta barneratzaileenak, ahalik eta herri-sektore gehien bilduko dituztenak, ahalik eta legitimotasun gehien ordezkatuko dutenak. Ondorioz, joskintzak gure praktika politikoaren ardatzetako bat behar du. Inplementazio bide ezberdinak izango dituzten herri-akordioak –instituzioak, herri-dinamikak, eremuen arteko lankidetza, etab.– progresiboki osatuko direla aurreikus genezake –txikitik handira–, prozesu logikari jarraiki. Akordio hauen inplementazioa ere molde berekoa izango da, urratsez urratsezkoa.

53.- Ez gara eliteen arteko akordioez ari, behetik gora herri-eragileen artean jositako akordioez baizik. Eta ez gara akordio eskean ibiltzea proposatzen ari, herri-akordioak osatzeko baldintza sozialak eraikitzeaz eta akordio horien inplementazioan aurkituko ditugun oztopoen aurrean gure burujabetza defendatzeko herri aktibazioa antolatzeaz baizik.

54.- Honako atal nagusietan gutxienez behar ditugu herri-akordioak:

Oinarrizko eskubide sozialak: Euskal Herriko Eskubide Sozialen kartak prozesu autoeratzailearen erreferentzia beharko luke, bertan jasotzen diren eskubide sozialak bermatzeko akordioetan etengabe sakonduz.

Garapen sozioekonomikoa: Justizia sozialean oinarrituriko garapen eredu berri baten eraikuntzarako ezinbestekoa zaigu burujabetza ekonomikoan aurrera urratsak ematea. Ondorioz, esparru sozioekonomikoak agerizko garrantzia hartzen du prozesu autoeratzailean. Laburbilduz, datozen urteetan, euskal garapen eredu bat garatzeko ahalmena izango duen eskuduntzen esklusibitatea eta koordinazio maila egokia aldarrikatu beharko genuke honako esparruetan: zerga politika, aurrekontu politika, lan harremanen arautzea, segurantza sozialeko sistema propioa, finantza sistema propioa, berrikuntza politika, ekonomiaren jarduera antolatu eta planifikatzeko ahalmena, sektore publikoa eraginkorki erabiltzeko ahalmena, gure lurraldeko baliabideen kontrola eta azpiegituren kudeaketa.

Hezkuntza sistema: Estatuen birzentralizazioak gure hezkuntza sistema arautzeko ditugun eskumenak erabat kamustu dituelarik, hezkuntza komunitatean oinarrizko akordio zabalak eraikitzeko garaia da. Akordio horietatik eratorriko lirateke hezkuntza sistema propio bat egituratuko luketen lege propioen inguruko adostasun zabalak.

Euskal Hedabide Esparrua: Datozen urteetan hedabideak –telebista, irratia zein prentsa–funtsezkoak izango dira herri-nortasuna eta hizkuntzaren bizi-indarra berritzeko. Aldiz, garai digitalean Euskal Hedabide Esparruak nabarmen egin du atzera, espainiar zein frantziar sare mediatikoaren nagusitasuna erabatekoa delarik. Euskal Hedabide Esparrua pentsatu eta eraikitzea herri gisa hartu behar dugun erronka da.

Gatazkaren ondorioen konponbidea: Bakerako Euskal Bidea proposamenean jasotako edukiek gatazkaren ondorioen gainditze integralerako bide orria erakusten dute. Honako atal hauek jasotzen dira: Biktimak eta memoria, zigor eta espetxe politika eta iheslarien itzulera, armagabetzea eta desmilitarizazioa.

Herri-identitatearen birsortze sinbolikoa: Atal honetan kokatzen dugu euskal kulturgintzari ikusgarritasuna, transmisio-bideak eta prestigioa emango liokeen 'estatu itun' bat. Baita, adibidez, herri-nortasuna indartzeko izan dezakeen potentzialitateagatik,

euskal kirol selekzioen ofizialtasunari bide emango lieketeen herri-akordioak.

55.- Euskal lankidetza: Euskal lankidetza euskal lurralde ezberdinetako herritar, herri-eragile eta instituzioek elkarrekin interes komunak landu eta errealitate sozial, kultural eta ekonomiko berriak sortzeko egiten duten herrigintza praktika da, lurraldeen arteko dinamika kohesionatzaileak sustatu eta herri sentimendua eguneratzen duena. Euskal Herrian lan eta bizi, duinki eta burujabe; helburu horren alde Euskal Herri funtzionala[1] egituratzea bilatzen duen lankidetza.

56.- Euskal lankidetzak bere baitan egiteko ezberdinak biltzen ditu: elkartasun ekimenak, eragileen arteko saretzea, lurraldeen arteko jarduera osagarriak, ezaugarri amankomunak dituzten eskualdeen artean ekimen edota zerbitzu bateratuak, euskal orubea bere osotasunean hartuko duten egitasmo berritzaileak, etab.

57.- Izan ere, ugariak eta anitzak dira euskal lankidetzak barnebil ditzakeen herrigintza praktikak: harreman soziokulturalak –hezkuntzan, aisian, kirolean, arte mota guztietan, etab.–, komertzialak –bertako produktuen barne merkatua sustatzea–, akademikoak –ikasleen barne mugikortasuna errazteko bideak–, jarduera sozioekonomiko abegikorrak eta hauei lotutako esperientziak hedatzeko sare eta sustapen egiturak, etab.

58.- Nazioartekotzea: Euskal Herriaren dinamika autoeratzaileak nazioarteari begirako estrategia integral bat martxan jartzea eskatzen du. Guk munduari buruz dugun ikusmoldea aldarrikatzea ez da nahikoa, hortik haratago nazioarteko komunitatean arrakastatsuki eragiteko plan eraginkor bat behar dugu. Izan ere, mundu globalizatu honetan nazioartea eta Euskal Herria banaezinak dira burujabetzarako estrategia bat definitzeko orduan. Ezin da bata pentsatu bestea pentsatu gabe. Globalizazioak, 'hemen' eta 'han' kontzeptuen arteko pertzepzioa aldatu du, eta beraz alferrik da bi planteamendu isolaturekin jardutea, bata Euskal Herriarentzat eta bestea nazioartearentzat; nazioartea eraiki nahi dugun Euskal Herri burujabearen alde eragiteko funtsezko eremua baita.

59.- Polo anitzeko errealitaterantz abiatu da mundua. Ez da batzuek pentsatu zuten mundu polo bakarra, gerra hotzeko mundu bipolarraren amaieraren ostean askok ikuskatu zuten bezala. Errealitate berrian elkar-lerratze globalak aldakorragoak eta arinagoak izango dira. Mundua erronka berriei aurre egin beharrean aurkituko da -aldaketa klimatikoa adibidez- eta, historikoki ezagutu dugun aliantza sistema desagerturik, askoz ere aldakorragoak izango diren egoeretan aurkituko gara.

60.- Halaber, estatuak ez dira jada, eta ez dira izango gehiago, botere harreman berrietan subjektu bakarrak. Aktore eta errealitate berriek jokatuko dute –egitura gain estatal zein azpi eta albo estatalak, hiri-erregioak, transnazionalak, komunikabideak, Gobernuz

1.- Euskal Herri funtzionala kontzeptuak Euskal Herria lurralde eremu sozioekonomiko eta kultural beregain gisa egituratzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia; Euskal Herriaren lurraldean harreman sozial, ekonomiko eta kulturalak birsortzeko gaitasun faktikoari.

Kanpoko Erakundeak eta fundazioak, etab.–, globala eta lokala nahastuko direlarik. Aldakortasun honetara azkar egokitzeko ezagutza eta gaitasuna izatea gakoa izango da.

61.- Nazioarteari begirako posizionamendu eta jarduerak –erakundeetan, hedabideetan, zein beste esparruetan– helburuen arabera baloratu eta garatu beharko dira, jakinik oztopo edo laguntza bilakatu daitezkeela estatu bat sortzeke duen herriarentzat.

3.1.2. Lurralde-agendak

62.- Lurralde-agendek eremu juridiko-administratibo bakoitzean aitortza goreneko status juridiko-politiko berriak eskuratzeko prozesuak marrazten dituzte, zeinak aldagai askoren menpe egongo diren prozesu kontingenteak izango diren: herri-agendaren bidez sortzen ditugun baldintzak, Estatuen bilakaera, krisi ekonomikoaren baldintzapenak, etab. Lurralde-agendek estrategia eta taktika ondo artikulatzea funtsezkoa izango da Euskal Herriaren dinamika autoeratzaileak azelerazio momentuak izan ditzan, eta ondorioz, aukera berriak ireki daitezen. Horretarako, zuzendaritza ariketa dinamiko eta iraunkorra beharko da.

Jarraian, epe laburrean erabakigune bakoitzean sustatuko dugun bidearen trazo lodiak marraztuko ditugu.

Euskal Autonomia Erkidegoa

63.- Iraileko hauteskundeetatik hiru ondorio nagusi atera ditzakegu. Lehena: EAJren hegemonia gaur gaurkoz eztabaida ezina da. Espainiarekiko politika alderatuari etekina ateratzen maisu bilakatu da EAJ. Izan ere, Espainiako egoera tamalgarriaren aldean egonkortasuna eta ziurtasun maila bat bermatu dezakeen ideiak habia egin du euskal jendartearen hainbat sektoretan. Bi faktore gutxienez hartu behar dira kontuan EAJren diskurtsoaren eraginkortasuna ulertzeko. Batetik, euskal politikak bizi duen hispanozentrismoa: azken urteotan espainiar sare mediatikoak irabazi duen nagusitasunak euskal marko kognitiboa ahuldu du, eta inoiz baino gehiago, Espainian gertatzen denak bizi gaitu. Bestetik, diskurtso horrek oso erraz konektatzen du globalizazioaren jendarte-joerek astindutako euskal jendartearekin. Hobetzeko nahia bai baina proiektu komun baten aldeko atxikimendu lausoa adierazten duen indibiduo prekarizatua, gaurkoz, EAJren aterpera bildu da.

64.- Bigarren ondorioa: ezkerreko soberanismoari ate berriak ireki zaizkio. Paradoxikoki, indartuta atera den arren, EAJri murriztu egin zaizkio burujabetza prozesua oztopatzeko izan dituen aukerak. Ondorioz, ezkerreko soberanismoari azken lau urteetan izan ez dituen aukerak zabaldu zaizkio burujabetza prozesua azkartu dezaketen gertaerak

lantzeko.

65.- Hirugarrena: Bizkaiko metropolian ezkerreko soberanismoak duen hutsuneak ezin du gehiago itxaron. Beharrezkoa zaigu abiapuntu berri bat jartzea eta zonalde horri begirako estrategia beregainak pentsatzen hastea.

66.- Gauzak horrela, hurrengo legegintzaldian Autonomia Erkidegoko status juridiko-politikoaren eztabaida mahai gainean egongo da enegarrenez; eta ezin dugu aukera pasatzen utzi. Krisialdi ekonomiko permanentean murgildutako Espainian errotiko demokratizazio bat eman daitekeenaren itxaropena birrindu egin da, eta ziurra da hurrengo gobernuak murrizketa eta neurri birzentralizatzaile berriak aplikatuko dituela. Bestaldean, jendartearen gehiengo bat erabakitze eskubidearen aldekoa da, baita gehiengo parlamentario bat ere. Eta batez ere, geroz eta agerikoagoa da tresna burujabeak behar ditugula politika sozial eta ekonomiko propioak garatu eta garapen bide berriak urratzeko.

67.- Beraz, status juridiko-politiko berri baten gaineko eztabaida herritarra piztu eta burujabetzaren eta demokraziaren aldeko herri-ekimena indartzeko garaia da, erabakitzeko eskubidearen aldeko gehiengo herritarra operatibizatu eta erabakiaren aroari –aro eratzaileari– hasiera ematekoa. Bi fase aurreikus genitzake hurrengo legegintzaldian: lehena, status juridiko-politiko baten gaineko adostasuna eraiki bitartekoa. Bigarrena, jendarteari aurretiazko kontsulta egin, Madrilera jo eta Estatuaren ezezkoak irekiko lukeena.

68.- 20 urte beteko dira aurki ELAk Estatutu hau hilda dago esan zuenetik. Ordutik, Ibarretxeren plana eta Loiolako aurreakordioa ezagutu ditugu. Badugu esperientzia nahikorik beraz prozesuak herri-ekimen sendorik gabe aurrera egingo ez duela esateko. Are gehiago, EAJ saiatuko da hispanozentrismoak ematen dion abantaila bere posizio pribilejiatuak mantentzeko probesten, eta beraz, herri-ekimenez baino ez dugu lortuko aldaketa soziala ahalbideratuko duen status juridiko-politiko berri baten aukera egikaritzea. Norabide horretan, funtsezkotzat jotzen dugu mugimendu sindikalak bete dezakeen papera.

Nafarroa

69.- 2015eko Foru eta Udal hauteskundeetan nafar jendartearen gehiengo anitz batek Erregimena ordezkatzen duten indar politikoak –UPN eta PSN– instituzioetatik desalojatu eta aldaketa politiko eta sozialaren aldeko hautua egin zuen. Gehiengoaren hautu horren ondorioz, 'Akordio Programatikoa'-k ahalbideratu zuen Geroa Bai-ren gidaritzapean gelditu zen gobernua. Halaber, Nafarroako 49 Udal –Iruñekoa barne– eta hainbat Mankomunitate aldaketaren aldeko indarren esku gelditu ziren.

70.- Diagnosian erratuko ginateke aldaketa ekarri duen ibilbide luzea aintzat hartuko ez

bagenu. Aldaketa, Nafarroan demokrazia eskatzen zuen borroka ziklo baten ondorio eta inflexio une gisa ulertu behar dugu. Azken urteetako ustelkeriaren kontrako borrokek eragin zuzena izan badute ere, gertatutakoa ulertzeko haratago jo beharra dago, eta herri-sektore ezberdinek –tartean ezker abertzaleak– Erregimenari aurre egiteko adierazi duten posizio irmoa, eta alternatiba herritar eta aurrerakoiak gorpuzteko apustu zintzoa kontuan hartu.

71.- Gauzak horrela, datozen urteetan Nafarroako agertoki politikoa ezaugarrituko duen bataila politiko nagusia Erregimenaren eta demokrazia aldarrikatzen duen aldaketaren artekoa izango da. Finean, datozen urteetako gakoa honakoa izango da: nola lortzen dugun Erregimenaren erorketaren aldeko esparru politiko, sozial eta ideologikoa indartu eta Nafarroarentzako status berri aurrerakoi eta burujabe baten aldeko gehiengo bilakatzea.

72.- Status berriaren proiektuak nafar jendartea hobeto bizitzeko egitasmo politiko-sozial partekatua izan behar du: nafar identitatea eta aniztasuna oinarri, jendarte sozialki justu eta aurrerakoi bat proposatuko duena, eta gaurdanik gainerako euskal lurraldeekin harremanak estutuz, etorkizun batean euskal proiektu konpartitutarako bideak irekiko dituena.

73.- Erregimenaren eta aldaketaren arteko bataila horretan instituzioak joko zelai pribilegiatua izango dira, baina ezinbestekoa izango da aldi berean ziklo mobilizatzaile berri bat aktibatzea. Horixe izan baita gaurko egoera ahalbideratu duena, eta horixe izango baita Erregimenaren erauntsiei erantzun eta aldaketa soziala atzeraezin bilakatzeko modua.

74.- Honakoak dira aurreikus dezakegun testuinguru honetan kontuan hartu beharreko elementu nagusiak:

- Brusela eta Madriletik murrizketa ekonomiko berriak eta Nafarroaren burujabetzaren kontrako erasoak –birzentralizazio prozesu orokorrari lotutakoak– etorriko dira.

- 2017an nafar jendarteak sekula bozkatu ez zuen Amejoramenduaren 35. urteurrena beteko da. Urteurren honek 78ko Erregimenaren eta haustura demokratikoaren arteko eztabaida mahaigaineratuko duela aurreikus genezake.

- Erregimenaren aldeko indarrek, 2019ko Foru eta Udal hauteskundeak tarteko, Erregimena berrezartzeko eta betikotzeko oldarraldia antolatuko dute.

75.- Testuinguru honetan, Erregimena behin betiko gainditzeko aukera historikoa zabaldu da: batetik, Nafarroa ustiatu duen Erregimenaren sistema klientelar eta baztertzailea deseraikiz –jarduera deseratzailea–, eta bestetik, Nafarroako jendartearen nahi eta

beharretik abiatuta, nafarron hitza eta erabakia baldintza bakar izango duen burujabetza prozesua bultzatuz –jarduera eratzailea–. Nafarroaren hitza eta erabakia oinarri duen aldaketa politiko eta sozialari bultzada erabakigarria emateko baldintzetan gaude.

76.- Zeintzuk dira baina indartu behar ditugun ekinbiderako lerro nagusiak?

- Demokrazian sakontzeko nafarron erabakimen osoa aldarrikatuko duen ziklo mobilizatzaile indarberritua sustatzea, horretarako prestutasuna duten herri-sektore eta herritarrekin batera.

- Aldaketaren egitasmoa eremu lokal eta munizipaletatik sustatzea.

- Status berri baten aldeko adostasun sozial eta politikoak jostea.

77.- Erronka honen aurrean ezkerreko soberanismoaren lidertza ezinbestekoa izango da, eta baita Sortuk sektore herritar eraldatzaileekin konplizitateak josi eta elkarrekintzak artikulatzeko adieraz dezakeen gaitasuna ere.

Ipar Euskal Herria

78.- Herri-elkargoaren sorrerarekin Ipar Euskal Herriaren aitortzaren aldeko borrokan urrats inportantea emango da: lurraldetasunaren ezagupena. Urrats hori hamarkadetako dinamika politikoaren ondorioa da, eta 10-15 urte iraun dezakeen fase berri batean kokatzen gaitu. Fase berriaren ezaugarritzeak egoerari buruzko faktore erabakigarriak aztertzea eskatuko du. Kanpo faktoreei dagokienez:

- Frantses Estatuaren antolaketaren erreformak aurrera segi dezan probabilitate handiak daude, horrek ekar ditzakeen aukera eta arriskuekin. Aukerak, herri-elkargoen indartzetik etor daitezke, eta horien ordezkarien hautaketa bozka zuzenaren bitartez finkatzetik. Arriskuak, aldiz, erregioen azkartze eta birzentralizazio joeratik etorriko dira. Aldi berean, frantses sentimendu nazionalistaren indartzea areagotzeko arrisku handiak daude, sekurokraziaren eskutik askatasun demokratikoak zangopilatuz.

- Datozen urteetan hazkunde demografiko handia ezagutuko dugu Ipar Euskal Herrian, euskararen egoeran, nortasun sentimenduan eta etxebizitzaren alorrean eragin dezakeelarik.

79.- Barne faktoreei dagokienez berriz:

- Azken urteetan indartu egin da mugimendu abertzalea Iparraldean, Ipar Euskal Herriko agenda politikoa baldintzatzera iritsiz. Hori dela eta, kontsentsu maila handiak osatu dira mugimendu abertzalearen funtsezko aldarrikapenen inguruan.

Kontsentsu horiek jendarteratzeko orduan ordea zailtasunak handiagoak dira, adostasunok elite politikoek bere gain hartzeak ez baitu segurtatzen herri mailan baitezpadako txertaketarik. Fase berriari aurre egiteak azken urteetan mugimendu abertzalean eraiki ditugun adostasunen eta sortu ditugun tresna amankomunen sendotzea eskatzen du.

- Problematika sozialen areagotzeak eta indarrean dauden joera demografikoak kontutan harturik, mugimendu abertzaleak egokitzen jakin beharko du.

- Mugimendu abertzaleak ez ezik, ezker abertzaleak ere aztertu behar dituen problematiken artean, belaunaldi transmisioarena dugu.

- Azkenik, lehen aitortza instituzional baten lortzearen haritik joera bat, arrisku bat gorpuztu daiteke: mugimendu abertzalearen instituzionalizatze progresiboa.

80.- Herri-elkargoaren erdiestearekin, frantses Estatua Ipar Euskal Herriari ezagutza maila bat onartze aldera mugiaraztea lortu dugu. Baina, argi dago Parisek, lehen eta azken urrats gisa hartzen duela, eta beraz, aurrerabidea aldebakarrekoa izango da edo ez da izango. Herri-elkargoa indarrean jartzearen bataila ongi itxi ondoren, lehen marko juridiko-administratibo honen topeak jotzea bilatu beharko dugu, markoaren mugak agerian uzteko helburuz. Astintze ariketa hori ez dugu ekimen instituzional gisa ezaugarritu behar, jendarte-sektore zabalen mobilizazioa bilatzen duen ariketa gisa baizik. Gainera, herri-elkargoaren sorrerak Euskal Herriko mapa agerian ematen hasteko aukera eskaintzen digu, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Iparraldearen arteko harreman-marko propioa artikulatuz.

81.- Gainera, azpimarratu behar da, Ipar Euskal Herriak erabateko ukazioaren testuinguruan aurrera egitea lortu badu eraikuntza logikarekin gauzatu diren dinamikei esker izan dela. Herri ikuspegi batetik funtsezkoak diren eremuetan, eraikuntza logika horren jarraipenari eta indartzeari lehentasuna eman beharko diogu, dinamiketa ezberdinetan murgilduak diren eragileen artikulazio nazionala bilatuz.

3.2. Nondik eragin?

82.- Eta nondik eragin agenda hauen gauzapenean? Prozesu politikoak eragiletza dinamikoa eskatzen du, garapen bitarteko eraginkorrak, arkitektura bat non funtzioak banatuko diren. Atal honetan, garapen bitartekoen definizio ariketaren aurretiko gogoetari helduko diogu, esku-hartze bide nagusiek zeintzuk behar luketen marrazten ahaleginduz.

1. Demokraziaren eta burujabetzaren aldeko herri-dinamikak
2. Ekimen politiko-instituzionala

3. Herri-eragileen harreman esparrua
4. Euskal lankidetzarako eragiletza
5. Prospekzioa eta ikerketa
6. Nazioartekotzerako eragiletza

83.- Demokraziaren eta burujabetzaren aldeko herri-dinamikak: Frogatuta dagoenez euskal herritarren gehiengo bat erabakitze eskubidearen aldekoa da, noiz eta euskal herritarren borondate demokratikoaren aurkako erasoa inoiz baino bortitzagoa denean. Horrenbestez, erabakitze eskubidearen aldeko gehiengoa operatibizatzeko garaia iritsi da, eta hori herri-ekimenez baino ezin daiteke egin. Herri gisa aitortuko gaituzten eta gure etorkizuna esparru guztietan libre eta demokratikoki erabakitzeko dugun eskubidea jasoko duten status juridiko-politiko berrien aldeko herri-ekimena; eta aldi berean, Euskal Herrian demokratikoki hartutako erabakiak defendatuko dituena.

84.- Halaber, beharrezkoak ditugu burujabetza eta demokraziaren aldeko arloz arloko herri-dinamikak. Burujabetzaren arlokako deklinazioak herri-ekimen askotarikoen ardatz behar luke: burujabetza ekonomikoa, energetikoa, edota alimentarioa aldarrikatuko dutenak, euskal kulturgintzaren transmisioa eta garapena sustatuko dutenak, kirol selekzioen ofizialtasuna aldarrikatuko dutenak, etab. Garrantzia berezia dute dependentziak gure herriari dakarzkion kostuak ageriarazi, Euskal Herrian prozesu autoeratzaile bat garatzearen beharra indarrez mahaigaineratu, eta beraz, prozesuaren palanka izan daitezkeen horiek. Ekimen sindikalaren balio estrategikoa dakarkigu gogora.

85.- Ekimen politiko-instituzionala: Funtsezko esku-hartze bide honi bi funtzio nagusi egozten dizkiogu, eta ez nolanahikoak: Batetik hegemonia lehiatzea bere burua demokrazia-burujabetza ardatz politiko-ideologikoan kokatuz. Eta bestetik botere instituzionala prozesu autoeratzailearen mesedetan operatibizatzea.

86.- Herri-eragileen harreman esparrua: Euskal Herriak prozesu autoeratzaile bati urgentziaz ekin behar diola konpartitzen duten herri-eragileek espazio dialogiko bat eraiki behar dute lehentasunez. Ikuspegiak eta analisiak konpartitzeko, harremanak estutzeko, sinergiak bilatzeko eta prozesu autoeratzaileari dagozkion diseinuak lantzen hasteko. Horrelako espazio dialogiko batetik sortu beharko liratezke Euskal Errepublikaren proiektua landu eta jendarteratuko luketen subjektuak.

87.- Halaber, gatazkaren ondorioen konponbidearen alorrean ere, Bakerako Euskal Bidea proposamenaren garapenaren baitan, justizian oinarrituko den bake eskenatoki baten aldeko herri-eragile eta norbanakoen arteko harreman esparruak indartzea dagokigu.

88.- Euskal lankidetzarako eragiletza: Lurraldeen arteko dinamika kohesionatzaileak garatzeko udalgintzak bete dezakeen bitartekaritza funtzioa birdefinitu behar dela deritzogu. Izan ere, lurralde ezberdinetako Udalen amankomunazgoa euskal

lankidetzaren sustapena egiteko plataforma egokia litzatekeela uste dugu.

89.- Euskal lankidetzak eskatzen duen eragiletzak gainera, tokian toki garatzen den proiektugintza saretu eta proiekzio nazionala emateaz gain, herrigintzaren behaketa deritzoguna ere hartu beharko luke bere gain. Hau da, Euskal Herrian barrena sortzen diren tokiko eskalaz gaindiko proiektu herrigileak identifikatu eta garabidean behar duten aholkularitza eta formakuntza bitartekoak eskaintzea.

90.- Euskal Herriak burujabetza askotarikoa oinarri duen garapen eredu berri baten aldeko proiektu berritzaileen erreferentziazko esperimentazio esparru behar luke Europan. Horretarako baldintzak egon badaude.

91.- Prospekzioa eta ikerketa: Jendarte analisi estrategikorako gune nazional baten beharrizan agerikoa sumatzen dugu. Munduan gertatzen ari diren aldaketa prozesuek Euskal Herria eta euskal jendartea nola astinduko duten ulertzeko antizipazio gaitasunik gabe arrisku sistemikoen menera biziko baikara. Gainera, aldaketa prozesuon aurrean herri gisa ditugun indarguneak nola baliatu ditzakegun ikuspegi beregainetik ikertzeko premia bizia dugu, jakintzaren ekoizpenean eta hedapenean dugun menpekotasuna handia baita.

92.- Euskal intelligentsia aktibatu eta saretuko duen gune batetaz ari gara, datozen aldaketak interpretatu, ondorioak identifikatu eta jorratu beharreko politika publiko, sozial eta pribatuak landuko lituzkeena.

93.- Nazioartekotzerako eragiletza: Nazioartekotzeak eragiletza propioa behar du. Maila goreneko eragiletza, herri gisa agertuko gaituena nazioarteko komunitatean. Aliantzak landu eta goi mailako diplomazia egiteaz gain, Euskal Herria nazioartean agertzeko estrategiak landuko dituen gune bat beharrezkoa izango da hurrengo fase politikoan.

4. Euskal Errepublika 2026?

Si no nos dejan que la democracia nos lleve a la independencia,
será la independencia la que nos lleve a la democracia.

David Fernandez (2016)

94.- Bideak iparra behar du. Burujabetzearen egitasmoak Euskal Errepublikaren proiektu politikoa gaurdanik lantzea eskatzen du, gaurtik ekin behar diogu Euskal Estatua hezurmamitzeko ariketa herritarrari. Abagunearen azterketan azaldu legez ez baitugu Estatuak demokratizatzeko baldintza historikorik aurreikusten, eta ondorioz, bidean aurrera egin ahala, subordinazioari alternatiba bakartzat dakusagun proiektu politikoak mahai gainean behar du.

95.- Euskal Errepublika ezaugarritzen hasteak independentziaren proiektu mitikoa aldarrikapenaren esparrutik atera eta fase politiko honetan aurkituko dugun errealitate material eta instituzionalarekin konstrastatzea eskatzen du. Zer motako estatu eredua irudikatzen dugu? Zer nolako estandar sozialak bete beharko lituzke? Nola antolatuko luke botere politikoa? Zer motako gobernantza eredua osatuko luke euskal lurraldeen artean? Emaitza bidean eraikiko ditugun botere-harreman berrien araberakoa izango da, ez dago zalantzarik. Beraz, helburua ez da definizio ariketa itxi bat osatzea. Alta, independentzia utopiaren esparrutik ateratzeak, eta jendartearen aurrean proiektu gauzagarritzat aurkezteak, Euskal Estatuaren nolakotasunaz gaurdanik hitz egiten hastea eskatzen du.

96.- Ariketa honek herritarra behar du, herri-eragile askoren artekoa. Sortuk, eztabaida sustatze aldera, oinarrizko marko teoriko bat proposatzen du, fase politiko honetan irudikatzen dugun Euskal Estatuaren oinarrizko ezaugarritze bat baino ez, tamaina honetako herri-egitasmo batek jaso litzakeen borondate anitzen konfluentzia aukerak adierazte aldera.

97.- Euskal Errepublika konfederala: demokraziaren kalitatean sakontzeko; ongizate maila altuko jendarte eta ekonomia eredua eraikitzeko; eta euskal kultura, euskara eta identitate komunitarioa sendotzeko.

Ondoko irudian sintetizatu ditugu proiektu politiko honek jaso ditzakeen borondate anitzak eta borondate horien teilakatzeak.

Ongizatea, zoriontasuna, justizia, berdintasuna, askatasuna, senidetasuna, elkartasuna, jendarte kohesioa, erronkei eta jomugei aurre egiteko lurralde eta jendarte gaituagoak.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (NNBB, 1948) eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena bermatu. Jendartearen ahalduntzea eta erabakitzeko eskubidea, parte hartzea, ustelkeria mugatu, informazio eskubidea, genero berdintasuna, ekonomiaren demokratizazioa, administrazio publikoak gehiengoaren interesen menpe jardun, karguen errebokazioa, diskriminazio mota guztien ezabaketa, askatasuna eta aukera berdintasuna, estatuaren izaera hertsatzailearen berrikuspena, justizia berdiintasuna, pentsamendu eta adierazpen askatasuna, etb.

Lan-harremanen hobetzea, ekonomia soziala eta kooperatibismoa, jendartearen behar eta interesak identifikatzeko gaitasuna, enpresa eredu eraginkorragoa, lan-baldintzen hobetzea, berrikuntza soziala, kontzertazio soziala.

Identitate komunitarioaren, eredu demokratikoaren eta kohesio sozial/politikoaren arteko elikatze efektuak. Dibertsitatearen onarpenak eta zainketak demokraziarengan onura.



Ekonomia, Jendarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Hitzarmena (NNBB, 1966) bermatu. Lan duina, errenta eta lan banaketa bidezkoa, babes sozial maila aurreratua, pobrezia eta jendarte bazterkeriarekin amaitu, genero berdintasuna, beste herriekiko elkartasuna eta garapenerako laguntza, ekonomiaren kudeaketa jendartearen zerbitzura jarri, balio erantsi altuko sare produktiboa, finantzak egitura produktiboaren eta jendartearen mesedetan, ingurugiroan, jendartean eta ekonomian iraunkortasun irizpideak bermatu, kalitatezko hezkuntza, kalitatezko osasun zerbitzu publikoa, justizia soziala eta zoriontasuna helburu.

Hizkuntza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapena (NNBB, 1966) eta Ekonomia, Jendarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Hitzarmena (NNBB, 1966) bermatu. Herri/nazio identitate irekia sustatu, euskararen diaglosi egoerarekin amaitu, gure historia berreskuratu eta zabaldu, euskal kultura sendotu, globalizazioak eragindako homogeneizazioari aurre egin, hizkuntza eta kultur dibertsitatea zaindu, herri/nazio ezberdinekiko identitate aukera bermatu.

Kapital sozialaren indartzea, identitate partekatuen eragin positiboa, kultur aberastasuna, jendarte kohesioa, baliabide endogenoak balioztatu, lurralde gaitasunak (akordioak, berrikuntza, jokaera proaktiboak, etb.) indartu.

EUSKAL ERREPUBLIKA ERAIKITZEKO BORONDATE ANITZA

98.- Burujabetza prozesuan aurrera egiteak dilema baten aurrean jarriko du Euskal Herria fase politiko honetan: Euskal Errepublikak irekitzen dituen itxaropen bideak ala 78ko Erregimenak ordezkatzen duen etsipena. Sorturen aburuz, irekitzen den fase politikoan Euskal Errepublikaren egitasmoa gorpuztu eta gauzabidean jartzea euskal jendartearen aspirazio sozial emergenteei erantzuteko herri-erronka partekatua izan ahalko litzateke; iraultza demokratiko bat Europaren bihotzean, garaiko ekintza ziklo kolektiboarekin bete-betean uztartuko litzatekeena, eta herrien Europa demokratiko baten aldeko prozesu askatzaileekin lotuko gintuzkeena. 2026. urterako Euskal Errepublikari ateak irekitzea, horixe Sortuk proposatzen duen herri-erronka partekatua.

99.- Beraz, burujabetzea bada bidea eta Euskal Errepublika iparra, nola definitzen dugu zehazki irekitzen den fase politikoa? Zeintzuk dira fase politiko honi egozten dizkiogun helburu konkretuak? Honako hiru helburuen alde borrokatuko du Sortuk datozen urteetan:

1. Krisialdi ekonomikoak kolpatutako euskal jendartearen beharrizanei erantzungo dien prozesu autoeratzailean aurrera egitea fase konstituziogilea abiatzeko baldintza material eta kulturalak erdiesteraino. Hots, Euskal Errepublikaren aldeko ibilbide demokratikoan aurrera urrats determinanteak ematea borondate anitzen konfluentzia artikulatuz.

2. Aurreko fasea ixtea: gatazkaren ondorioen gainditze integrala.

3. Aro zerumuga berri baten norabidean aurrera urratsak ematea. Euskal Sozialismoaren eraikuntza historikoaren bidean komunitarismoaren, soiltasunaren, erantzunkidetasunaren, berdinzaletasunaren, feminismoaren eta euskaltasunaren oinarrietan sakontzea.

100.- Hauxe beraz irekitzen den fase politikoaren erronkaren osotasuna. Baina nola aurkitzen da abertzaletasuna, euskalgintza eta ezker abertzalea bera tamainako erronka bati heltzeko? Abagunearen azterketan genioen bezala, Gernikako errautsek ernaldu zuten, frankismoaren oldarraldi betean loratu zen eta garaiko paradigma soziopolitiko eta intelektualetatik edanez Euskal Herriari ekarpen kolosala egin dion mobilizazio ziklo historiko baten hondarrean aurkitzen gara. Tentsio gogorren nolabaiteko desagerpenarekin batera –estatuen makinaria errepresiboa ez baita inolaz ere gelditu–, izpiritu indartsu horren nolabaiteko moteltze bat suma daiteke euskal jendartearen sektore batzuetan.

101.- Paradoxikoki, indar sortzaileen mantsotze hori azken 40 urteetan nekez amestuko genituen baldintza objektiboak sortzeaz batera etorri da –Estatuen krisi estrukturala, prozesu independentistak martxan europar mendebaldean, etab.–. Testuinguru historiko honetan ezetzaren kulturatik sormenaren kulturara igarotzeko urgentzia

dugu, erresistentziaren estimuluan bermatu ordez gure indar sortzaileari heltzekoa. Eta horretarako, irekitzen den fase politikoari indarberriz heltzeko, herri honek ispiluaren aurrean jarri behar duela deritzogu, introspekzio ariketa bat behar duela, baita ezker abertzaleak berak ere; orain arteko lorpenez jabetu eta mundu ikuskera berri bat barneratuz, mobilizazio ziklo historiko berri bat ireki eta askapen prozesua bururatzeko gai izan dadin.

5. (BIR)SORTU

La nueva organización política no debería buscar contener en su seno a los representantes 'legítimos' de todos los que luchan por la emancipación, sino esforzarse por articular sus prácticas en un único proyecto político, generando espacios de encuentro para que los diversos malestares sociales puedan reconocerse y crecer en conciencia y en luchas específicas que cada uno tiene que dar en su área determinada.

Marta Harnecker (2013)

102.- Eta Sortuk zer? Azken atal honetan Sorturen ildo politikoa izan beharko duena marrazten ahaleginduko gara. Borroka kultura berri baten zertzeladak eman, Sorturen eginbeharrak finkatu eta praxi politiko konkretua definitzeko saiakera da azken atal hau.

5.1. Sortu berria

103.- Sortuk ezker abertzalearen proiektu politikoaren artikulaziorako tresna eraginkorra izan nahi du. Eta horretarako, bere praxi politikoan, Euskal Herri justu, berdinzale, iraunkor, feministaeta euskaldun baten aldeko herrigintza lanean diharduen komunitatearen topagunea behar luke; burujabetza eza ezberdinetatik askatze bidean ezker abertzalearen proiektu politikoarekin bat egiten duten independentisten bilgunea; analisirako, gogoetarako, produkzio politikorako, formaziorako eta aktibismorako espazio bat; Euskal Herriarekiko eta euskal herritarrekiko zerbitzu bokazioa duena, status quoa zalantzan jarri eta astintzeko gai izango dena, eta sinesgarritasuna eguneroko praktika politikoaren bidez irabaziko duena.

104.- Sortu eta Sortzaileen artean bi norantzako elikadura ematen da: Sortzaileek eguneroko herrigintza lanean biltzen duten jakintza Sortun depositatzen dute, Sortu ezker abertzalearen inteligentzia kolektiboaren arragoa bihurtuz. Kontrako norantzan, sortzaileek, aberastasun hori oinarri lantzen den produkzio politikoa –analisia, gogoeta estrategikoa, proposamenak– beraien militantzia esparru propiora eramaten dute, herrigintza lana aberastu asmo duen ekarpena eginez.

5.1.1. Sorturen eginbeharrak

105.- Praxi politikoari dagokionez, Sorturen eginbeharra, funtsean, fase honi egotzi dizkiogun hiru helburuei begirako dinamizazio lanak burutzea da: a) prozesu autoeratzailearen garapenari dagokionez, b) aurreko zikloa gainditzeari dagokionez, eta c) jendarte eredu berri baten aro zerumugan aurrera urratsak emateari dagokionez.

a) Prozesu autoeratzailearen dinamizazioari dagokionez, Sorturen eginbeharra prozesu politikoa pentsatzea –gogoeta estrategikoa eta produkzio politikoa– eta prozesuak bere garapenean behar dituen dinamizazio lanak burutzea da, beti ere, hainbatetan azaldu denez, elkarrizketa eta sorkuntza kolektiboa helburu duen lidertza demokratikoa sustatuz. Finean, Euskal Herriaren prozesu autoeratzailearen logistika lanak egin beharko lituzke Sortuk.

b) Gatazkaren ondorioen gainditze integralari dagokionez, Bakerako Euskal Bidean zehaztuta dagoen bide orria bere ahalegin guztiekin bultzatu behar du Sortuk, justizian oinarrituriko elkarbizitzaren eraikuntzan protagonistak izan behar dugulako, eta borroka ziklo berrian gure potentzialitate guztia askatzeko aurreko zikloa behar bezala ixtea komeni zaigulako. Horrekin batera, aurrerago zehaztuko denez, gatazkaren ondorioekin lotutako ildo propio bat garatzea ere badagokio Sorturi.

c) Sortuk ezker abertzalearen proiektu politiko estrategikoa iraunkorki elikatu behar du, aldaketa soziala eta hegemonia independentista landuko duen ildo politikoa garatuz. Zentzu horretan, Sortuk praktika politikoari atxikitako antolakundea izan behar du, analisiak eta gogoetak zer praktika politiko konkretuan dekodifikatzen diren asmatuz; ezker abertzalearen proiektu politikoa iraunkorki elikatuko duen praktika politikoa, egitasmo nortasunak, aurreko borroka paradigmako erresistentzia nortasunak ez bezalako neurrian, borrokarako grina etengabe birsortzea eskatzen baitu, eta hori praktika politiko berritzailearen bidez baino ezin baitaiteke egin. Eginbehar honetan, Sorturen praktika politikoak gazte belaunaldi berriak askapen prozesura batzeko zubiak eraiki behar ditu.

106.- Hiru ardatzetako bakoitzean, Sortuk, zehazki:

• Lidertza estrategiko demokratikoa garatu behar du, norabidea proposatuz eta urratsak bultzatuz, prozesua bera indartuko duen erreferentzialtasuna landuz. Ezker abertzaleak bere ibilbide luzean bildutako jakintza eta sorkuntza gaitasuna herriaren zerbitzura jarri behar ditu.

• Kalitatezko ekarpena egin behar du ideien esparruan, prozesuaren aldeko hegemonia eraikiz; hasteko, prozesuaren komenigarritasuna argudiatuz.

• Borroka, esparru eta eragileen artikulazio emankorrak bultzatu behar ditu, konplizitate eraginkorrak eraikiz, elkarlana hezurmamituz eta prozesu autoeratzaileari norabide eraldatzaile integrala emanez. Indar aktibatzailea izan behar du finean Sortuk.

• EH Bildu eta EH Bai aliantza estrategikoak sendotu behar ditu, prozesuaren erreferente politiko-instituzional eraginkorrak bilakatuz.

• Energia askatzaileen sorreran eta bideratzean lagundu behar du, eragile-bitarteko-itzultzaile izanik eta herrigintzan ekarpen zehatza eginez.

• Euskal Herriaren prozesu autoeratzailea nazioartean uztartzen eta kokatzen lagundu behar du.

• Erakunde adimenduna izan behar du: entzuten dakiena, iraunkorki ikasten duena, esperientzien sistematizazioa egiten duena, eztabaidatzen duena, sortzen duena. Erakunde porosoa, irekia, enpatikoa eta solidarioa.

5.2. Sorturen praxia

107.- Hiru eginbehar hauek gauzatzeko bi esku-hartze lerro nagusi izango ditu Sortuk: Ekintza Politikoa eta Herrigintza. Esku-hartze lerro bakoitzak logika politiko berariazkoa du, eta ponentzia organizatiboan zehazten denez, dimentsio organizatibo propioa behar du.

5.2.1. Ekintza politikoa

108.- Ekintza Politikoa deritzogu prozesu politikoaren epe laburreko erronkei erantzuten dion ekimenari, koiunturari lotzen dena eta taktika politikoa ekimen zehatzetan gauzatzea bilatzen duena; dimentsio nazionaletik abiatzen dena eta herri eta auzoetan deklinazioa behar duena. Esku-hartze lerro honetan, Sorturen egitekoa prozesuaren garapen bitartekoetan eragitea da: interlokuzio gaitasuna izatea eragile eta norbanakoekin, gogoeta estrategikoa eta produkzio politiko kualitatiboa gehitzea, borrokarako grina adieraziz eguneroko militantzia lanean.

Lau egiteko konkretu hartu beharko lituzke Sortuk bere gain esku-hartze lerro honetan:

109.- 1. Demokraziaren eta burujabetzaren aldeko herri-ekimenak bultzatzea: erabakitzeko eskubidearen aldeko herri-dinamikak indartzea dagokigu datozen urteetan. Badago erabakitzeko eskubidearen aldeko gehiengo sozial bat gure herrian, iritsi da beraz erabakiaren aroa gauzatzeko garaia. Gure herri izaera aitortu eta erabakitzeko dugun eskubidea onartuko duten status juridiko-politiko berriak behar ditugu, ez soilik Estatuekin izan nahi dugun harremana erabakitzeko, baizik Euskal Herriaren garapen sozial, ekonomiko eta kulturalari lotutako erabaki guztiak hemen har daitezen. Beraz, erabakitzeko eskubidearen aldeko gehiengoak operatibizatuko dituzten herri-ekimenak sustatzea dagokigu.

Bestalde, arloz arloko burujabetzaren aldeko herri-ekimenak indartuko ditu Sortuk, burujabetza eta aldaketa soziala uztartzen dituzten horiek, eta modu berezian, Euskal

Herriaren prozesu autoeratzailearen palanka izatea bilatzen dutenak.

110.- 2. EH Bildu eta EH Bairi ekarpena egitea. Sortuk lehen mailako ekarpena egingo dio estrategikotzat dakusagun aliantza politiko-instituzionalari, EH Bildu eta EH Bai herri-sektore zabalen erreferentzia politiko-instituzionalak bihur daitezen.

111.- 3. Euskal Herriaren autoeraketaren aldeko joskintzan aritzea. Sortuk herri honen gaineko diagnosi bat jartzen du mahai gainean ponentzia honekin: herri honen pultsua motel nabari da eta arrisku sistemikoak handiak dira. Diagnosi hau konpartitzen duten herri-eragile eta norbanakoekin harremanak eta sinergiak landu eta gogoeta esparruak eraikitzeak lan ildo iraunkorra izan behar du.

112.- 4. Gatazkaren ondorioen konponbidearen alorra lantzea. Lau egiteko identifikatu dira alor honetan, azken hirurak Sortuk bere ekimen propioz garatu beharrekoak:

a) Bakerako Euskal Bidea proposamenak behar dituen garapen bitartekoak sustatzea. Hainbatetan esan dugunez, Estatuei baldintza demokratikoak exijitzetik Euskal Herrian gauzatzeko mekanismoak ezartzera igaro behar gara, gatazkaren muina eta sortutako ondorioen konponbidea Euskal Herrian eman dadin borrokatuz. Bide orri hori Bakerako Euskal Bidea proposamenean dago jasota.

b) Presoei sostengu politiko eta humanoa ematea. Sortu preso politikoekin identifikazio osoa duen mugimenduaren espresio organizatiboa da, beraiekin eta kartzelara eraman zituzten borrokaren zioekin. Ondorioz, batetik, presoei sostengu politikoa ematea dagokio: presoek prozesu politikoan parte hartze aktiboa izan dezaten elikadura politikoa bermatzea. Horrekin batera, presoei babes politikoa adierazi eta beraien askatasuna aldarrikatuko duten ekimen propioak garatuko ditu. Bestetik, presoek beraien jatorrizko inguru sozialarekin harremana mantendu dezaten beharrezkoa den sostengu humanoaz ere arduratuko da Sortu, oinarrizko beharrizanetatik hasita.

c) Euskal Herriaren desmilitarizazioaren aldeko borroka bultzatzea. Ezker abertzaleak herri honetara bere esku zegoen bake zatia ekarri duelarik, indar okupatzaileen kontrako ildoak gaurkotasun erabatekoa du.

d) Ezker abertzalearen hondare historikoaren interlokutorea izatea. Plano politikoan, ezker abertzaleak Euskal Herriaren asimiliazio saiakeren aurka egin duen intsubordinazioaren defentsa politiko eta ideologikoa eginez. Eta plano humanoan, etika iraultzailearen bideetan barrena, justizian oinarrituko den elkarbizitza eredu berri baten aldeko lidertza intelektuala garatuz.

5.2.2. Herrigintza

113.- Herrigintza deitu dugun bigarren esku-hartze lerroak arnas luzeko ekimen politikoari egiten dio erreferentzia, baldintza material eta kultural berriak eraikitzeko txinaurri lanari. Ekintza Politikoaren kontrara, Herrigintzaren esku-hartze lerroa dimentsio lokaletik abiatzen da, herri eta auzoetan oin hartzen du, eta proiekzio nazionala izatera iristen da.

114.- Bi herrigintza espresio bereizten ditugu: ekintzailetza soziala eta ekintzailetza komunitarioa. Ekintzailetza soziala deritzogu jendarte berriaren eraikuntzan diharduten herri-mugimenduen ekimenari, modu batean ala bestean, eta agenda propioz, egungo botere harremanak zalantzan jarri eta Euskal Sozialismoaren eraikuntza historikoari ekarpena egiten dion ekimen sozialari. Herrigintzaren espresio honek Euskal Herriaren prozesu autoeratzaileari ortzimuga berriak irekiko dizkien baldintzak sortzea du helburu behinena, interpelazioa, ekintza zuzena, irrupzioa edota protesta molde berriak baliatuz kasu askotan. Herrigintza espresio honen adibide jator ugari ezagutu ditugu azken urteetan: Gora Gasteiz, fracking-aren kontrako mugimendua, herri-harresiak, Gipuzkoa Zutik, mugimendu feministak egindako ekimen andana, errefuxiatuen aldekoak, etab. Sortzaileek ekintzaile sozialak behar lukete, Euskal Sozialismoaren eraikuntzari ekarpena egiten dioten herri-mugimendu guztietan aktiboki parte hartuz.

115.- Azken urteetan asko hitz egin da herri-mugimenduen eta instituzioen arteko dialektikaz. Sortuk dialektika hau tentsio sortzaile gisa ulertu behar duela deritzogu. Instituzioak funtsezko borroka esparrua dira Euskal Herriaren prozesu autoeratzailea egungo sistema instituzionaletik abiatzen dugun neurrian. Baina aldi berean, presente izan behar dugu instituzioak ezin direla eraldaketa sozialaren abangoardia izan. Herri-mugimenduei, beraz, instituzioak interpelatzetik haratago, baldintza sozial berriak eraikitzea dagokie, Euskal Herriaren eraikuntza instituzionalari ortzimuga berriak irekitzea.

116.- Ekintzailetza komunitarioa aldiz logika komunitarioa ardatz hartzen duen herrigintzaren espresioa da, herri eta auzoak subjektu eratzailetzat hartzen dituen proiektugintza. Komunitate osoari zabaldutako parte hartze prozesuak dira herrigintza honen oinarria, eta epe motzeko helburuei zuzendutako moldeetatik haratago, prozesuari berari jartzen dio arreta, baldintza objektibo eta subjektibo berriak onduko dituzten jabetze prozesuak garatu asmoz. Herrigintzaren espresio honetan kontzertazioa bilatzen dugu, adostasuna eraikitzea komunitatea osatzen duten eragile eta norbanakoen artean –gizarte zibila, administrazioa publikoa eta tokiko eragile ekonomikoak barne hartuz–, esan bezala, Zer adosten dugun bezain beste, adostasun horretara heltzeko prozesuan garatuko dugun ahalduntze prozesuari –Nola– jarriz arreta. Sortzaileei parte hartze prozesuen dinamizazio lanetan aritzea dagokie, ahal bezain jabetze prozesu sakonenak garatu asmoz, eta herri-eskualde proiektu baten norabide estrategikoa elikatzen duten

urratsez urratsezko prozesu metakorrak sustatuz. Sortzaileek ekintzaile komunitarioak behar lukete, alegia.

117.- Azken urteetan bereziki oparoa izan da herrigintzaren espresio honetan egin dena, eta azpimarratzekoa da EH Bilduk garatu duen udalgintzak honetan egin duen ekarpena. Era askotako proiektuak aurki ditzakegu Euskal Herrian barrena; batzuk partzialak, beste batzuk herri-eskualde proiektu integral baten logikari erantzuten dietenak: moneta sozialak, elikadura burujabetzari lotutakoak, tokiko ehun produktiboa biziberritzea helburu dutenak, euskalgintzaren bueltakoak, hezkuntza eta aisialdi eredu berriei lotutakoak, hirigintza eredu iraunkorra sustatzea helburu dutenak, energia burujabetzaren aldekoak, etabar luze bat.

118.- Ekintzailetza komunitarioan aritzeaz gain, Sorturen egitekoa izango da tokiko proiektugintza honi dimentsio nazionala ematea, Euskal Herri osoko esperientziak saretzen laguntzea, euskal lankidetza deitu dugun praktika politikoa sustatu eta Euskal Herria garapen eredu berri baten aldeko herrigintzaren abangoardian kokatzeko ahaleginean.

5.2.3. Dinamika Aktibista Propioa

119.- Ekintza Politikoa eta Herrigintza deitu ditugun bi esku-hartze lerro hauetaz gain Sortuk dinamika aktibista propio bat ere garatuko du, iniziatiba propioz eta askotan bere marka erabiliz, Ekintza Politikoari zein Herrigintzari lotutako edozein gairen inguruan ahots propioa behar duela komenigarria deritzonean: kanpaina mobilitzaile berritzaileak, borroka ideologikoan eragiteko ekimenak edota ekintza aldarrikatzaile zehatzak, ekintza-hausnarketa-ekintza espirala iraunkorki birsortzeko helburuz; logika kontestatarioan zein propositiboan. Funtsezkoa izango da hizkuntza, sinbologia eta moldeak berritzea gazte belaunaldiekin eta sektore herritar zabalekin bat egingo badugu.

120.- Laburbilduz, Sorturen praxi politikoa ondorengo lau ardatzetan oinarritzen da:

1. Euskal Herriaren prozesu autoeratzailearen dinamizazioa, prozesu politikoak martxan dituen garapen bitarteko ezberdinetan lidertza demokratikoa garatuz.

2. Ekintzailetza soziala, Euskal Sozialismoaren eraikuntzari ekarpena egiten dieten herri-mugimenduetan parte hartuz.

3. Ekintzailetza komunitarioa, tokikotasunaren oinarrian proiektugintza eraldatzailea garatuz.

4. Dinamika aktibista propioa, espazio aktibista propio bat eskainiz militantziari.

121.- Praxi politikoaren lau ardatz hauetan herri eta auzoen autonomia printzipio funtsezkoa da. Esan nahi baita, herri eta auzoek beregainak izan behar dute, beraien buruak fase politiko honen ortzimugan proiektatzeko gai, estrategiaren koordenadak ulertuz fase politiko honi begirako helburu propioak markatu eta Ekintza Politikoak eta Herrigintzak izan behar duten deklinazioa diseinatzeko gai. Non izan nahi dugu gure herri-auzoa 2026an? Zer baldintzetatik abiatzen gara horretarako? Zer nolako tresnak izango ditugu gure esku ibilbide hori egiteko? Nola uztartuko ditugu? Ariketa hau herri-auzo bakoitzean egitea funtsezkoa da, lan politikoaren eraginkortasuna militantzia eremuaren ezagutza zehatzarekin zuzenki harremanduta baitago.

sortu

sortu.eus

zurekin birsortu